# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia | Iruña, 2009ko ekainaren 25a | 66. ZK.


**A U R K I B I D E A**

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**


—Berako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina (2. or.).

—Baztango Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2007ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina (15. or.).

**G saila:**
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

# Berako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko apirilaren 20an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Berako Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2009ko apirilaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## Berako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

### AURKIBIDEA


**I.** Sarrera (2. or.).

**II.** Helburua (3. or.).

**III.** Hedadura (3. or.).

**IV.** Iritzia (4. or.).

IV.1. Udalaren eta haren erakunde autonomoaren 2006ko ekitaldiko kontu orokorra (4. or.).

IV.2. Legezkotasuna (4. or.).

IV.3. Ekonomia- eta finantza-egoera 2006ko abenduaren 31n (4. or.).

**V.** 2006ko kontu orokorraren laburpena (5. or.).

V.1. Berako Udala (5. or.).

V.2. Isidoro Fagoaga musika-eskola (9. or.).

**VI.** Iruzkin eta gomendio orokorrak (11. or.).

VI.1. Alderdi orokorrak (11. or.).

VI.2. Langile-gastuak (11. or.).

VI.3. Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak (11. or.).

VI.4. Inbertsioak (11. or.).

VI.5. Emandako diru-laguntzak (12. or.).

VI.6. Inbentarioa, ibilgetua eta zordunak (12. or.).

VI.7. Aurrekontuko sarrerak (12. or.).

VI.8. Gorabeherak (13. or.).

VI.9. Hirigintza (13. or.).

VI.10. Bera Lantzen SL (13. or.).


### I. SARRERA

Comptos Ganberak, bere jardun-programarekin bat, Berako Udalaren eta Isidoro Fagoaga haren erakunde autonomoaren 2006ko kontu orokorra ikuskatu du.

Berako Udalak 35 km -ko azalera du, 3.727 biztanle ditu eta 2006ko abenduaren 31n zifra esanguratsu hauek ditu:

| Erakundea | Aitortutako obligazioak | Aitortutako eskubideak | Langileak 2006-12-31n |
|---|---|---|---|
| Udala | 3.202.462,33 | 4.582.897,02 | 17 |
| Isidoro Fagoaga musika-eskola | 185.776,14 | 185.612,67 | 9 |

Udalak, 2006ko azaroaren 29an, Bera Lantzen, SL sozietatea eratu zuen. Horren helburua Berako udalerriaren hirigintza-kudeaketa da. Lehen ekitaldian 690 euroko diru-sarrerak eta 39.884 euroko gastuak izan ditu; hau da, 39.194 defizita izan du. Sozietate hori 2007an desegin da.

Udala Bortzirietako Euskara eta Gizarte Zerbitzuetako mankomunitateetan, eta Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitatean sartuta dago.

2006ko ekitaldian Berako Udalari aplikatutako araubide juridikoa, funtsean, honako hau izan da:

• 6/1990 Foru Legea, Nafarroako toki-administrazioari buruzkoa.

• 2/1995 Foru Legea, Nafarroako toki-ogasunei buruzkoa.

• 11/2004 Foru Legea, Nafarroako toki-araubidea eguneratzekoa.

• 7/1985 Legea, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena.

• 251/1993 Foru Dekretu Legegilea, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzurako langileen estatutuari buruzkoa.

• 10/1998 eta 6/2006 foru-legeak, kontratazio publikoa arautzen dutenak.

• 38/2003 Lege Orokorra, diru-laguntzei buruzkoa.

• 35/2002 Foru Legea, lurralde-antolamenduari eta hirigintzari buruzkoa.

• Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru-dekretuak dira, guztiak Nafarroako Toki Administraziorako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak.

• Berako Udalaren gauzatze-oinarriak.

Txostena sei epigrafetan egituratzen da, sarrera hau barne dela. Bigarren epigrafean, txostenaren helburuak azaltzen ditugu. Hirugarrenean, egindako lanaren hedadura eta, laugarrenean, kontu orokorrari, legezkotasunari eta finantza-egoerari buruz dugun iritzia azaltzen dugu. Bosgarren epigrafean, Udalak eta haren patronatuak egindako finantza-egoeraren orrien laburpen bat ematen dugu eta, seigarrenean (azkena), barruko antolamendua eta kontrola hobetzeko egokiak iruditzen zaizkigun oharrak, ondorioak eta gomendioak arloka jasotzen ditugu.

Berako Udaleko eta haren erakunde autonomoko langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiten laguntzeagatik.

## II. HELBURUA

Nafarroako toki-administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako toki-ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Berako Udalaren 2006ko ekitaldiari dagokion kontu orokorraren erregulartasuna ikuskatu dugu.

Gure txostenak honako puntu hauei buruz dugun iritzia agertzea du helburu:

a) Berako Udalaren 2006ko kontu orokorrak alderdi esanguratsu guztietan jasotzen ote duen erakundearen ekonomia- eta finantza-egoeraren, aurrekontu-likidazioaren eta lortutako emaitzen irudi zehatza; eta oro har onartutako kontabilitate-printzipioen eta -arauen arabera egin ote den (horiek uniformetasunez aplikatu dira).

b) Berako Udalak eta haren erakunde autonomoak 2006. urtean garatutako jarduerari aplikatzekoa zaion legeriaren betetze-maila.

c) Berako Udalaren eta haren erakunde autonomoaren finantza-egoera 2006ko abenduaren 31n.

Txostenarekin batera, erakundearen ekonomia- eta finantza-kudeaketa hobetzeko beharrezko gomendioak doaz.

## III. HEDADURA

Comptos Ganberak Berako Udalaren eta haren erakunde autonomoa den Isidoro Fagoaga musika-eskolaren kontu orokorra ikuskatu du. Kontu orokorrak, besteak beste, honako elementu hauek biltzen ditu:

a) Erakundearen beraren eta haren erakunde autonomoaren kontua.

b) Bera Lantzen SLren urteko kontuak.

c) Kontu orokorraren eranskinak.

Finantza-egoeraren orri esanguratsu gisa, Udalak honako hauek aurkeztu ditu:

a) Erakundearen beraren eta haren erakunde autonomoaren aurrekontuaren gauzatze-egoera, ekitaldiko aurrekontu-emaitza eta diruzaintzako gerakina.

b) Erakundearen eta haren erakunde autonomoaren egoera-balantzea.

c) Erakundearen eta haren erakunde autonomoaren galdu-irabazien kontua.

Udalak ez ditu Udalaren beraren eta haren erakunde autonomoaren (musika-eskola) kontu bateratuak aurkezten.

Udalak eta haren erakunde autonomoek aplikatutako kontabilitate-araubidea 272/1998 Foru Dekretuak onartutako kontabilitate-jarraibide orokorrean arautzen da. Sozietate publikoa erabat partaidetuta dago, eta merkataritza-enpresei aplikatzekoa zaien kontabilitate-plan orokorraren arabera aurkezten ditu urteko kontuak.

Lan hau egiteko, Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako sektore publikoaren ikuskapen-printzipioei eta -arauei jarraitu diegu (Comptos Ganberak bere ikuskatze-eskuliburuan garatu ditu). Gainera, beharrezkotzat jo ditugun hautaketa-proba edo prozedura tekniko guztiak bildu ditugu, lanaren baldintzak eta helburuak kontuan izanda. Prozedura horien barruan, aurrekontu-sailen edo eragiketa zehatzen laginketaren edo hautaketa bidezko azterketaren teknikak erabili ditugu.

Zehazki, Udalarentzat eta haren erakunde autonomoarentzat, haien aurrekontuko eta finantzako egoera-orrien edukia eta koherentzia, eta aplikatutako oinarrizko administrazio-prozedurak aztertu ditugu, bai eta antolamenduarekin, kontabilitatearekin eta barne-kontrolarekin lotutako oinarrizko alderdiak ere.

Bera Lantzen SLri dagokionez, Udalarekin egindako eragiketa nagusiak eta garatutako jardueraren gainean Udalak aplikatutako kontrol-mekanismoak aztertu ditugu.

## IV. IRITZIA

Egindako lanaren hedaduraren arabera, Berako Udalaren eta haren erakunde autonomoaren 2006ko ekitaldiko kontu orokorra aztertu dugu. Horren prestaketa eta edukia Udalaren erantzukizuna dira.

Egindako azterketaren ondorioz, iritzi hau atera dugu:

### IV.1. UDALAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOAREN 2006KO EKITALDIKO KONTU OROKORRA

Ondasunen inbentarioa 1992koa da eta, eguneratzen ez denez, ezinezkoa izan da egoera-balantzeko ibilgetuaren saldoa egiaztatzea. Saldo hori, 2006ko abenduaren 31n, 8.172.465,77 eurokoa da.

Udalak ez du finantza-egoeraren orri bateratuak egiten.

Aurreko paragrafoan aipatutako salbuespenen eraginagatik ez bada, Udalaren 2006ko ekitaldiko kontu orokorrak alderdi esanguratsu guztietan jasotzen du gastuei eta sarrerei dagokien aurrekontu-likidazioaren, abenduaren 31ko ondare-egoeraren eta gauzatutako eragiketen emaitzen irudi zehatza, oro har onartutako kontabilitate-printzipioen eta -arauen arabera (horiek bat datoz aurreko ekitaldian aplikatutakoekin).

### IV.2. LEGEZKOTASUNA

Egindako lanaren hedaduraren arabera, oro har, Udalaren eta haren erakunde autonomoaren ekonomia- eta finantza-jarduera legezkotasun-printzipioari jarraituz garatu da.

### IV.3. EKONOMIA- ETA FINANTZA-EGOERA 2006ko ABENDUAREN 31n

#### IV.3.1. Udalaren finantza-egoera

5.136.469 euroko behin betiko aurrekontuarekin (aurreko ekitaldian 4.482.518 eurokoa zen), gauzatutako gastua 3.202.462 eurokoa da (2.716.736 2005eko ekitaldian), eta diru-sarrera 4.582.897 eurokoa (2.729.524 euro 2005ean); hau da, gauzatze-maila ehuneko 65ekoa da gastuetan eta ehuneko 89koa diru-sarreretan (ehuneko 59 bi kasuetan 2005eko ekitaldian).

Gastuen gauzatze txikiaren arrazoia, batik bat, inbertsio batzuk egin ez izatea da.

Diru-sarreren likidazioak, oro har, hasierako aurreikuspenak gainditu ditu, kasu hauek salbuetsita: zeharkako zergen ondoriozko diru-sarrerak (EIOZ) (horien likidazioak hasierako aurreikuspenaren ehuneko 77koa izan zen) eta kapital-transferentziak (ehuneko 58 gauzatu zen).

Ekitaldia ixtean, V. epigrafean zehazten denez, 1.380.435 euroko superabita lortu da (aurreko ekitaldia ixtean 12.969 euroko lortu ziren), eta doitutako aurrekontu-emaitza 364.902 eurokoa da (105.331 euroko defizita 2005ean).

Aurreko ekitaldietan egindako inbertsioak finantzatzeko zorpetzea 1.206.304 eurokoa da ekitaldiaren amaieran. Zorpetze-maila diru-sarrera arrunten ehuneko 6,28koa da, eta zorpetze-ahalmena dago, haren muga ehuneko 19,28koa baita.

Diruzaintzako gerakina 1.379.117 eurokoa da. Zenbateko horretatik 1.176.720 euro lotuta daudenez, gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina 202.397 eurokoa da.

### IV.3.2. Musika Patronatuaren finantza-egoera

Patronatuaren finantza-datu nagusiak hauek dira:

| Patronatua | Aitortutako obligazioak | Aitortutako eskubideak | Doitutako aurrekontu-emaitza | Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina |
|---|---|---|---|---|
| Musika P. | 185.776,14 | 185.612,67 | -163,47 | 579,23 |

Patronatuak ez du epe luzerako finantzaketarik.

## V. 2006KO KONTU OROKORRAREN LABURPENA

Berako Udalak ez du 2006ko kontu orokor bateraturik egin. Hortaz, honako finantza-egoeraren orri indibidual hauek erantsi ditugu:

### V.1. BERAKO UDALA

#### Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoka

| Sarreren kapituluak | Hasierako kredituak | Aldaketak | Behin betiko aurreikuspena | Aitortutako eskubide garbiak | Gauzatze % | Kobratua | Kobratzen % | Kobratzeko dagoena |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. Zuzeneko zergak | 829.200,00 | 0,00 | 829.200,00 | 939.651,75 | 113,32 | 639.413,99 | 68,05 | 300.237,76 |
| 2. Zeharkako zergak | 225.000,00 | 0,00 | 225.000,00 | 173.864,12 | 77,27 | 159.542,02 | 91,76 | 14.322,10 |
| 3.Tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak | 282.166,50 | 0,00 | 282.166,50 | 383.038,30 | 135,75 | 264.215,95 | 68,98 | 118.822,35 |
| 4. Transferentzia arruntak | 988.841,41 | 0,00 | 988.841,41 | 1.036.287,89 | 104,80 | 994.769,91 | 95,99 | 41.517,98 |
| 5. Ondare-sarrerak eta herri-ustiapenak | 253.938,42 | 0,00 | 253.938,42 | 299.230,81 | 117,84 | 908,18 | 0,30 | 298.322,63 |
| 6. Inbertsio errealen besterentzea | 1.360.080,00 | 0,00 | 1.360.080,00 | 1.359.684,01 | 99,97 | 1.359.684,01 | 100,00 | 0,00 |
| 7. Kapital-transferentziak | 674.769,01 | 0,00 | 674.769,01 | 391.140,14 | 57,97 | 181.167,37 | 46,32 | 209.972,77 |
| 8. Finantza-aktiboak | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | | 0,00 | | 0,00 |
| 9. Finantza-pasiboak | 522.473,79 | 0,00 | 522.473,79 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | | 0,00 |
| **Sarrerak guztira** | **5.136.469,13** | **0,00** | **5.136.469,13** | **4.582.897,02** | **89,22** | **3.599.701,43** | **78,55** | **983.195,59** |

#### Gastuak kapitulu ekonomikoka

| Gastuen kapituluak | Hasierako kredituak | Aldaketak | Behin betiko aurreikuspenak | Aitortutako obligazioak | Gauzatze % | Ordaindua | Ordainketen % | Ordaintzeko dagoena |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. Langile-gastuak | 760.111,09 | -21.587,94 | 738.523,15 | 735.181,78 | 99,55 | 726.612,33 | 98,83 | 8.569,45 |
| 2. Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak | 1.040.561,79 | 7.471,14 | 1.048.032,93 | 1.104.701,82 | 105,41 | 930.923,01 | 84,27 | 173.778,81 |
| 3. Finantza-gastuak | 43.537,03 | 0,00 | 43.537,03 | 46.083,93 | 105,85 | 46.083,93 | 100,00 | 0,00 |
| 4. Transferentzia arruntak | 474.442,11 | 11.106,80 | 485.548,91 | 446.218,30 | 91,90 | 410.317,97 | 91,95 | 35.900,33 |
| 6. Inbertsio errealak | 2.252.322,88 | -177.840,83 | 2.074.482,05 | 601.423,16 | 28,99 | 440.588,78 | 73,26 | 160.834,38 |
| 7. Kapital-transferentziak | 357.252,39 | 0,00 | 357.252,39 | 134.112,11 | 37,54 | 134.112,11 | 100,00 | 0,00 |
| 8. Finantza-aktiboak | 76.510,61 | 3.010,00 | 79.520,61 | 3.010,00 | 3,79 | 3.010,00 | 100,00 | 0,00 |
| 9. Finantza-pasiboak | 131.731,23 | 0,00 | 131.731,23 | 131.731,23 | 100,00 | 131.731,23 | 100,00 | 0,00 |
| **Gastuak guztira** | **5.136.469,13** | **-177.840,83** | **4.958.628,30** | **3.202.462,33** | **64,58** | **2.823.379,36** | **88,16** | **379.082,97** |

Aurrekontu-emaitza

| Kontzeptua | 2005 | 2006 |
|---|---|---|
| Aitortutako eskubideak 2006 | 2.729.704,42 | 4.582.897,02 |
| (Aitortutako obligazioak 2006) | 2.716.735,80 | 3.202.462,33 |
| **Aurrekontu-emaitza** | **12.968,62** | **1.380.434,69** |
| (Finantzaketa-desbideratze positiboak) | (170.957,51) | (1.176.719,81) |
| Finantzaketa-desbideratze negatiboak | 52.657,85 | 161.186,77 |
| **Doitutako aurrekontu-emaitza** | **(105.331,04)** | **364.901,65** |

Diruzaintzako gerakina 2006ko abenduaren 31n

| Kontzeptua | 2005 | 2006 |
|---|---|---|
| Sarreren aurrekontua: aribideko ekitaldia | 420.391,58 | 983.167,47 |
| Sarreren aurrekontua: itxitako ekitaldiak | 579.665,32 | 659.836,98 |
| Aurrekontuz kanpoko sarrerak | 22.672,59 | 14.507,00 |
| Ordainketen itzulketak | 73,46 | 638,23 |
| (Biltzen zailak diren eskubideak) | -544.914,22 | -524.900,02 |
| (Aplikatzeko dauden sarrerak) | | -219,51 |
| **Kobratzeko dauden eskubideak** | **477.888,73** | **1.133.030,15** |
| Gastuen aurrekontua: aribideko ekitaldia | 341.169,10 | 379.082,97 |
| Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak | 33.219,35 | 86.453,96 |
| Sarreren itzulketak | 1.783,26 | 1.755,14 |
| (Aplikatzeko dauden gastuak) | 0,00 | 0,00 |
| Aurrekontuz kanpoko gastuak | 445.480,63 | 341.645,69 |
| **Ordaintzeko dauden obligazioak** | **821.652,34** | **808.937,76** |
| **Diruzaintzako funts likidoak** | **343.799,49** | **1.054.321,17** |
| Finantzaketa-desbideratze negatibo metatuak | - | 703,23 |
| **Diruzaintzako gerakina guztira** | **35,88** | **1.379.116,79** |
| Sarrerei lotutako gastuen ondoriozko diruzaintzako gerakina | 170.889,17 | 143.216,81 |
| Lotutako baliabideen ondoriozko diruzaintzako gerakina | 0,00 | 1.033.503,00 |
| **Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina** | **-170.853,29** | **202.396,98** |

Ratioak 2005-2006

| Adierazlea | 2005 | 2006 |
|---|---|---|
| Sarreren gauzatze-maila | % 59,36 | % 89,22 |
| Gastuen gauzatze-maila | % 59,08 | % 64,58 |
| Kobrantzen betetze-maila | % 84,62 | % 78,55 |
| Ordainketen betetze-maila | % 87,44 | % 88,16 |
| Zorpetze-maila | % 7,42 | % 6,28 |
| Zorpetze-muga | % 12,48 | % 19,28 |
| Zorpetze-ahalmena | % 5,06 | % 13,00 |
| Aurrezki garbia | % 5,06 | % 13,00 |
| Pertsonal-indizea | % 25,25 | % 22,96 |
| Inbertsio-indizea | % 10,69 | % 18,78 |
| Diru-laguntzekiko mendekotasuna | % 44,24 | % 30,39 |
| Sarrerak biztanleko | 745 | 1.230 |
| Gastuak biztanleko | 741 | 859 |
| Sarrera arruntak biztanleko | 679 | 760 |
| Gastu arruntak biztanleko | 605 | 626 |
| Zerga-sarrerak biztanleko | 350 | 402 |
| Finantza-karga biztanleko | 50 | 48 |
| Zorra biztanleko | 365 | 324 |

Egoera-balantzea 2006ko abenduaren 31n

AKTIBOA

| Izena | 2006 | 2005 | Aldakuntza |
|---|---|---|---|
| 1 Ibilgetu materiala | 5.905.483,33 | 7.080.751,42 | -1.175.268,09 |
| 2 Ibilgetu ez-materiala | 185.739,50 | 162.940,25 | 22.799,25 |
| 3 Erabilera orokorrera zuzendutako azpiegiturak eta ondasunak | 440.234,35 | 301.085,33 | 139.149,02 |
| 4 Herri-ondasunak | 1.637.938,49 | 1.382.879,52 | 255.058,97 |
| 5 Finantza-ibilgetua | 3.070,10 | 60,10 | 3.010,00 |
| **A Ibilgetua** | **8.172.465,77** | **8.927.716,62** | **-755.250,85** |
| 7 Izakinak | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| 8 Zordunak | 1.696.474,27 | 1.030.061,68 | 666.412,59 |
| 9 Finantza-kontuak | 1.056.519,99 | 343.799,49 | 712.720,50 |
| **C Zirkulatzailea** | **2.752.994,26** | **1.373.861,17** | **1.379.133,09** |
| AKTIBOA GUZTIRA | **10.925.460,03** | **10.301.577,79** | **623.882,24** |

PASIBOA

| Izena | 2006 | 2005 | Aldakuntza |
|---|---|---|---|
| 1 Ondarea eta erreserbak | 6.808.510,01 | 6.808.510,01 | 0,00 |
| 2 Ekitaldiaren emaitza ekonomikoa (mozkina) | 1.228.073,02 | 847.457,65 | 380.615,37 |
| 3 Kapitaleko diru-laguntzak | 835.097,81 | 478.670,50 | 356.427,31 |
| **A Funts propioak** | **8.871.680,84** | **8.134.638,16** | **737.043** |
| 4 Jasotako jesapenak, maileguak, fidantzak eta gordailuak | 1.206.303,51 | 1.338.034,74 | -131.731,23 |
| **C Epe luzerako hartzekodunak** | **1.206.303,51** | **1.338.034,74** | **-131.731,23** |
| 5 Aurrekontu itxien hartzekodunak eta aurrekontuz kanpokoak | 847.256,17 | 828.904,89 | 18.351,28 |
| 6 Aplikatzeko dauden kontu-sailak eta urtaldi amaierako doikuntzak | 219,51 | 0,00 | 219,51 |
| **D Epe laburrerako hartzekodunak** | **847.475,68** | **828.904,89** | **18.570,79** |
| PASIBOA GUZTIRA | **10.925.460,03** | **10.301.577,79** | **623.882,24** |

## V.2. ISIDORO FAGOAGA MUSIKA-ESKOLA

### Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoka

| Sarrerak | Hasierako kredituak | Aldaketak | Behin betiko aurreikuspenak | Aitortutako eskubide garbiak | Gauzatze % | Kobratua | Kobrantzen % | Kobratzeko dagoena |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 3. Tasak, prezio publikoak eta bestelako sarrerak | 35.000,00 | 0,00 | 35.000,00 | 20.287,86 | 57,97 | 16.384,66 | 80,76 | 3.903,20 |
| 4. Transferentzia arruntak | 180.000,00 | 0,00 | 180.000,00 | 161.212,70 | 89,56 | 155.942,28 | 96,73 | 5.270,42 |
| 5. Ondare-sarrerak eta herri-ustiapenak | 10,00 | 0,00 | 10,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 |
| 7. Kapital-transferentziak | 7.100,00 | 0,00 | 7.100,00 | 4.112,11 | 57,92 | 4.112,11 | 100,00 | 0,00 |
| **Sarrerak guztira** | **222.110,00** | **0,00** | **222.110,00** | **185.612,67** | **83,57** | **176.439,05** | **95,06** | **9.173,62** |

### Gastuak kapitulu ekonomikoka

| Gastuak | Hasierako kredituak | Aldaketak | Behin betiko aurreikuspenak | Aitortutako obligazioak | Gauzatze % | Ordaindua | Ordainketen % | Ordaintzeko dagoena |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. Langile-gastuak | 183.000,00 | 0,00 | 183.000,00 | 160.839,33 | 87,89 | 157.383,54 | 97,85 | 3.455,79 |
| 2. Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak | 31.950,00 | 0,00 | 31.950,00 | 20.816,52 | 65,15 | 19.554,00 | 93,94 | 1.262,52 |
| 3. Finantza-gastuak | 60,00 | 0,00 | 60,00 | 8,18 | 13,63 | 8,18 | 100,00 | 0,00 |
| 6. Inbertsio errealak | 7.100,00 | 0,00 | 7.100,00 | 4.112,11 | 57,92 | 3.886,70 | 94,52 | 225,41 |
| **Gastuak guztira** | **222.110,00** | **0,00** | **222.110,00** | **185.776,14** | **83,64** | **180.832,42** | **97,34** | **4.943,72** |

Egoera-balantzea 2005eko/2006ko abenduaren 31n

AKTIBOA

| Izena | 2006 | 2005 | Aldakuntza |
|---|---|---|---|
| 1 Ibilgetu materiala | 87.769,53 | 83.657,42 | 4.112,11 |
| 2 Ibilgetu ez-materiala | 1.125,66 | 1.125,66 | 0,00 |
| **A Ibilgetua** | **88.895,19** | **84.783,08** | **4.112,11** |
| 8 Zordunak | 9.294,28 | 22.585,27 | -13.290,99 |
| 9 Finantza-kontuak | 579,23 | 2.563,09 | -1.983,86 |
| 11 Aplikatzeko dagoen emaitza | 159,80 | 0,00 | 159,80 |
| **C Zirkulatzailea** | **10.033,31** | **25.148,36** | **-15.115,05** |
| **AKTIBOA GUZTIRA** | **98.928,50** | **109.931,44** | **-11.002,94** |

PASIBOA

| Izena | 2006 | 2005 | Aldakuntza |
|---|---|---|---|
| 1 Ondarea eta erreserbak | 69.899,65 | 69.899,65 | 0,00 |
| 2 Ekitaldiaren emaitza ekonomikoa (mozkina) | 0,00 | 137,30 | -137,30 |
| 3 Kapitaleko diru-laguntzak | 19.155,34 | 15.043,23 | 4.112,11 |
| **A Funts propioak** | **89.054,99** | **85.080,18** | **3.975** |
| 5 Aurrekontu itxien hartzekodunak eta aurrekontuz kanpokoak | 9.873,51 | 24.851,26 | -14.977,75 |
| **D Epe laburrerako hartzekodunak** | **9.873,51** | **24.851,26** | **-14.977,75** |
| **PASIBOA GUZTIRA** | **98.928,50** | **109.931,44** | **-11.002,94** |

## VI. IRUZKIN ETA GOMENDIO OROKORRAK

Jarraian azaltzen dira, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetako bakoitzerako, Ganbera honen aburuz Udalak bere egin behar dituen gomendio nagusiak, haren antolaketa, prozedura, kontabilitate eta barne-kontroleko sistemak hobetzeko.

### VI.1. ALDERDI OROKORRAK

• *Baimendutako kredituen izaera mugatzailea eta loteslea beteko dela ziurtatuko duten kontrolak ezartzea, bidezko aurrekontu-aldaketak onartu gabe gainditu baitira lotespen-poltsak.*

### VI.2. LANGILE-GASTUAK

Udalaren langile-gastuak 735.181,78 eurokoak dira. Egindako gastu guztien ehuneko 23 dira.

Kultura-koordinatzaileren lanpostua lehiaketa-oposizio bidez hornitzeko espedientea aztertu dugu. Azterketa horretatik ondorioztatzen da indarrean dagoen araudia behar bezala bete dela.

### VI.3. ONDASUN ARRUNTEN ETA ZERBITZUEN GASTUAK

Udalak 2006an egindako ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketak 1.104.701,82 eurokoak dira: ekitaldi horretan aitortutako obligazio guztien ehuneko 34.

Fakturen lagin bat aztertuta, ondorioztatu dugu gastuak onartuta, kontu hartuta eta behar bezala kontabilizatuta daudela.

Ondorengo espediente-lagina ere egiaztatu dugu:

| Espedientea | Mota | Prozedura | Esleipena |
|---|---|---|---|
| Berako haur-hezkuntzako lehen zikloko ikastetxearen kudeaketa | Zerbitzu publikoaren kudeaketa | Lehiaketa irekia | 161.810 |
| Obrak zuinkatu eta kontrolatzeko laguntza teknikoa | Laguntza | Negoziatua publizitaterik gabe | 11.136 |
| Berako Udalaren hirigintza-aholkularitzarako laguntza | Laguntza | Negoziatua publizitaterik gabe | 29.978 |
| Kirol-instalazioen eta -jardueren kudeaketa | Zerbitzu publikoaren kudeaketa | Lehiaketa irekia / lagapena | 63.627 |
| Lorategiak mantentzeko eta zuhaitzak inausteko zerbitzua | Laguntza | Lehiaketa irekia | 42.684 |

Egindako azterketatik ondorioztatzen dugu kontratazio-espedienteak, oro har, kontratuei buruzko legeriaren arabera bideratu direla.

### VI.4. INBERTSIOAK

Udalak 2006an egindako inbertsioak 601.423,16 eurokoak dira. Udalak egindako gastu guztien ehuneko 19 dira. Inbertsioen gauzatze-maila behin betiko aurrekontuaren ehuneko 29koa da. Horren arrazoia da aurreikusitako obren gauzatze txikia; besteak beste, ondoko hauena: udaletxearen zaharberritzea, lurretan inbertsioa, kaleak zolatzea, bideak eta parkea egokitzea, eta kultura-etxearen eta piraguismo-zentroaren ekipamendua.

Ondorengo espediente-lagina egiaztatu dugu:

| Espedientea | Mota | Prozedura | Esleipena |
|---|---|---|---|
| Errotaberria birgaitzeko proiektua idaztea | Laguntza | Negoziatua publizitaterik gabe | 19.720 |
| Errotaberria eraikina bultzatzeko proiektua idaztea | Laguntza | Negoziatua publizitaterik gabe | 19.000 |
| Baso-berritze lanak Lizanabarran eta Artxelun, eta baso-lanak | Obra | Lehiaketa irekia | 198.767 |
| Berako herri-larreetan abeltzaintza-egiturak hobetzea | Obra | Negoziatua publizitaterik gabe | 120.977 |

Aztertutako laginetik ondorioztatzen dugu espedienteak, oro har, kontratuei buruzko legeriaren arabera bideratu direla. Hala ere, hobetu daitezkeen zenbait alderdi antzeman ditugu; hots:

• *Premiazko kontratazio-espedienteak bideratzen direnean, horien premia justifikatzeko txosten bat egitea.*

• *Zuinketa egiaztatzeko akta egitea.*

VI.5. EMANDAKO DIRU-LAGUNTZAK

Emandako diru-laguntzak 446.218,30 euro dira transferentzia arruntetan, eta 134.112,11 euro kapital-transferentzietan. Transferentzia arrunten ehuneko 80 honako kontzeptu hauei dagokie:

| Transferentzia arruntak | Onartutako obligazioak |
|---|---|
| Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitaterako transferentzi arruntak | 79.364,64 |
| Musika-eskolarako transferentzia arruntak | 130.817,62 |
| Euskara Mankomunitaterako transferentzia arruntak | 107.228,49 |
| Kulturarako diru-laguntza | 45.222,37 |

Kirol- nahiz kultura-jardueretarako diru-laguntza arruntak deialdirik eta aurretiaz zehaztutako irizpiderik gabe ematen dira.

• *Diru-laguntzak emateko prozedurak ezartzea, publizitate- eta lehia-printzipio orokorrak bete ahal izateko.*

VI.6. INBENTARIOA, IBILGETUA ETA ZORDUNAK

• *Udal-inbentarioa eguneratu eta onartzea. Horretarako, alten eta bajen kontrol- eta jarraipen-sistema bat ezartzea, inbentarioa etengabe eguneratzea ziurtatu eta errazteko, eta kontabilitatean hura ibilgetuarekin lotzeko.*

• *Ibilgetuko altak eta bajak kontabilizatzeko eta dokumentazioa artxibatzeko prozedurak zehaztu eta ezartzea, kontu horiei aplikatzekoak diren kontabilitate-irizpideei jarraituz.*

VI.7. AURREKONTUKO SARRERAK

Udalaren sarrerak 2006an 4.582.897,02 eurokoak izan dira eta kontzeptu hauei dagozkie:

| Sarrerak | Aitortutako eskubideak | Guztizkoaren gaineko % |
|---|---|---|
| Zuzeneko zergak | 939.651,75 | 20 |
| Zeharkako zergak | 173.864,12 | 4 |
| Tasak, prezio publikoak eta bestelako sarrerak | 383.038,30 | 8 |
| Transferentzia arruntak | 1.036.287,89 | 23 |
| Ondare-sarrerak eta herri-ustiapenak | 299.230,81 | 7 |
| Inbertsio errealen besterentzea | 1.359.684,01 | 30 |
| Kapital-transferentziak | 391.140,14 | 8 |
| **Sarrerak guztira** | **4.582.897,02** | **100** |

Udalaren sarreren ehuneko 30, 2006ko ekitaldian, soberako deklaratutako Ibardineko lursailak saltzearen ondoriozko inbertsio errealen besterentzetik dator.

Sarrera horien ehuneko 23 transferentzia arruntetatik dator.

• *Sarreretarako kudeaketa-prozedurak ezartzea; ziurtagirien bidez, zerga-ordenantzak aplikatzen direla egiaztatu ahal izateko.*

• *Hiri-lurren balio-gehitzearen gaineko zerga (gainbalioa) lehenbailehen likidatzea.*

• *Obra-lizentziak eman aurretik, jarduera sailkatuaren lizentzia emateko ezarritako prozedura zorrotz betetzea.*

VI.8. GORABEHERAK

Egun, Udala administrazioarekiko lau auzi-prozeduratan dago sartuta. Horietako batean, 2007ko uztailaren 23an, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak ezetsi egin zuen Udalaren apelazioa Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren 2006ko abenduaren 11ko epaiarekiko. Epai horretan, Udala zigortu zuten auzi-jartzaileari kalte-ordaina ematera. Udalak 27.054 euro ordaindu behar izan ditu.

VI.9. HIRIGINTZA

Berako Udal Plana 2004ko abuztuan onartu zen behin betiko. Bertan, 35/2002 Foru Legearen zehaztapenak kontuan hartu ziren.

Udalak ez du lurzoruaren udal-ondarearen berariazko inbentariorik.

2006ko ekitaldian, hitzarmenen erregistroa formalizatzeke badago ere, hirigintza-hitzarmen bat hirigintza-legeriaren arabera bideratu dela egiaztatu dugu.

• *Lurzoruaren udal-ondarea Udalaren gainerako ondasunetatik bereizita eratu eta kudeatzea, lurralde-antolamenduari eta hirigintzari buruzko Foru Legeak adierazten duenez.*

• *Hirigintzako hitzarmenen erregistro ofiziala formalizatzea (izapideak eginda, zenbakituta, etab.) eta eguneratuta mantentzea.*

VI.10. BERA LANTZEN SL

Udalak, 2006ko azaroaren 29an, Bera Lantzen, SL sozietatea eratu zuen. Sozietatearen helburuak, haren estatutuen arabera, honako hauek dira: Berako udalerriko hirigintza-garapena sustatzeko udal-jardunean eraginkortasun handiagoa lortzea; hirigintza planifikatu, kudeatu eta gauzatzeko prozesuen kudeaketa arintzea; tokiko hiri-plangintzan udal-interesak zaintzeko udal-babesa bermatzea; Udalaren hirigintza-politikak bultzatu eta koordinatzeko tresna izatea; eta lurzoruaren kudeaketan eta plangintzan interes publikoen eta pribatuen arteko partaidetza eta lotura handiagoa lortzea, Berako udalerriaren garapen iraunkorra bermatzearren.

2006ko ekitaldiko egoera-balantzearen xehetasuna, laburtuta, honako hau da:

| AKTIBOA | 2006 | PASIBOA | 2006 |
|---|---|---|---|
| Ibilgetu ez-materiala | 9.890,00 | Harpidetutako kapitala | 3.010,00 |
| Ezarpen-gastuak | 338,07 | Ekitaldiko soberakin negatiboa | -39.194,10 |
| Zordunak | 8.705,73 | Zenbait ekitalditan banatzeko sarrerak | 0,00 |
| Aldi baterako finantza-inbertsioak | 0,00 | Epe laburrerako hartzekodunak | 58.127,89 |
| Diruzaintza | 3.009,99 | Epe luzerako hartzekodunak | 0,00 |
| **Guztira** | **21.943,79** | **Guztira** | **21.943,79** |

2006ko ekitaldiko galdu-irabazien kontuaren xehetasuna hau da:

| GASTUAK | 2006 | SARRERAK | 2006 |
|---|---|---|---|
| **Ustiapen-gastuak** | **0,00** | **Ustiapen-sarrerak** | **690,00** |
| Ustiapen-kontsumoak | 0,00 | Negozio-zifraren zenbateko garbia | 690,00 |
| Langile-gastuak | 0,00 | Bestelako ustiapen-sarrerak | 0,00 |
| Amortizaziorako zuzkidurak | 0,00 | | |
| Bestelako ustiapen-gastuak | 39.884,43 | | |
| Jarduera-horniduren aldakuntzak | 0,00 | | |
| **I. Ustiapen-mozkina** | **0,00** | **I. Ustiapen-galera** | **39.194,43** |
| Finantza-gastuak eta antzeko gastuak | 0,00 | Finantza-sarrerak | 0,33 |
| **II. Finantza-emaitza positiboa** | **0,33** | **II. Finantza-emaitza negatiboa** | |
| **III. Jarduera-mozkin arrunta** | **0,00** | **III. Jarduera-galera arruntak** | **39.194,10** |
| | | Ekitaldiko emaitzara transferitutako kapitaleko diru-laguntzak | 0,00 |
| **IV. Aparteko emaitza positiboak** | **0,00** | **IV. Aparteko emaitza negatiboak** | **0,00** |
| **V. Mozkinak zergen aurretik** | **0,00** | **V. Galerak zergen aurretik** | **39.194,10** |
| **VI. Ekitaldiko emaitza: mozkina** | **0,00** | **VI. Ekitaldiko emaitza: galera** | **39.194,10** |

2006ko ekitaldian, Udalak 3.010 euroko ekarpena egin du sozietatea eratzeko. Sozietateak hilabetez besterik ez du jardun, eta 39.194 euroko emaitza negatiboa du.

Bera Lantzen SLko Batzordeak 2007ko urriaren 18an sozietatea desegitea erabaki ondoren, eta Udalbatzak, data berean, Udal Hirigintzako Zerbitzua zuzenean Udalak kudeatzea erabaki zuen.

Txosten hau aurretiazko izapide guztiak bete dugun ondoren ateratzen dugu indarrean dauden arauen arabera.

Iruñean, 2009ko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

# Baztango Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2007ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko maiatzaren 11n eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Baztango Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2007ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2009ko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## Baztango Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2007ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

### AURKIBIDEA

Txosten betearazlea edo laburpena (15. or.).

**I.** Sarrera (15. or.).

**II.** Helburua (17. or.).

**III.** Hedadura (17. or.).

**IV.** Iritzia (17. or.).

IV.1. 2007ko abenduaren 31ko ondare-egoeraren agerpena (17. or.).

IV.2. Legezkotasuna (18. or.).

IV.3. 2007ko abenduaren 31ko finantza-egoera (18. or.).

IV.4. 2005eko txostenean egindako gomendioen jarraipena (18. or.).

**V.** Finantza-egoera (19. or.).

V.1. Baztango Udala (19. or.).

V.2. “Francisco Joaquín de Iriarte” zahar eta erretiratuen egoitza (22. or.).

V.3. Baztan Ikastola (25. or.).

**VI.** Iruzkinak, ondorioak eta gomendioak (28. or.).

VI.1. Aspektu orokorrak (28. or.).

VI.2. Langileria (28. or.).

VI.3. Administrazio-kontratazioa (28. or.).

VI.4. Inbentarioa/Ibilgetua (30. or.).

VI.5. Hirigintza (30. or.).

Eranskina: Udalaren 2007ko finantzen egoera-orriei buruzko memoria.

(Oharra: aipaturiko eranskinak foru parlamentarien eskura daude Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta ondoko web helbidean hain zuzen: www.cfnavarra.es/camara.comptos

### TXOSTEN BETEARAZLEA EDO LABURPENA

Comptos Ganberak 15 herrialdetan banaturiko 7.847 biztanle dituen Baztango Udalaren fiskalizazioa egin du 2007ko ekitaldirako. Baztanek antolamendu administratibo tradizionala mantentzen du, Udalak, Bailarako Batzorde Nagusiak eta hamabost herrietako batzarrek osatutakoa.

2007 ekitaldiko Udaleko kontu-orokorrak, sarreren eta gastuen aurrekontuen likidazioaren eta ondare-ekonomikoaren egoeraren irudi zehatza adierazten du alderdi guztietan, 1989 urtetik datorren inbentarioaz aparte eta Udal-jabetasuna duten Joaquin De Iriarte zahar eta erretiratuen egoitza eta Baztan Ikastola diren bere erakunde autonomoekin orri bateratua ez presentatzeaz aparte.

Legezkotasunaren alorrean, Udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa indarrean dagoen legeria errespetatuz burutzen da, nahiz eta administraziokontratazioaren alorrean zenbait salbuespen aipatzen diren.

Gaur egun ebatzi gabe dauden Toki-administrazioak administrazioarekiko auzibidearen aurrean ihardetsitako kontratazio-espedienteak berrikusi ez direla ere aipatzen da.

2007ko ekitaldian Udalak 11,5 milioi euro gastatu eta 12,5 milioi euro irabazi zituen. Kopuru honi zahar eta erretiratuen egoitzak eta ikastolak irabazitako 2,5 eta 3 milioi euro gehitu egin behar zaizkio.

Ekitaldiaren itxieran Baztango Udalaren zorra 4,5 milioi eurokoa zen, zorpetzeko ahalbidea zuelarik, limitea ehuneko 23an baitzeukan eta zorpetze maila erreala baxuagoa baitzen.

Txostenak, Udalaren prozedurak hobetzeko beharrezkotzat jotzen diren gomendio, iruzkin eta burutzapenak biltzen ditu.

### I. SARRERA

Comptos Ganberak, jarduteko egitarauaren arabera, Baztango Udalaren 2007ko ekitaldiko horri bateratuaren fiskalizazioa burutu du.

Baztango Udalak 7.847 biztanle ditu eta, dagozkion erakunde autonomikoekin batera, 2007ko abenduaren 31an zifra adierazgarri hauek ditu:

| Erakundea | Onartutako obligazioak | Onartutak | Langileak 07-12-31n |
|---|---|---|---|
| Udala | 11.520.901,76 | 12.473.647,92 | 56 |
| Zaharren egoitza | 1.917.296,64 | 2.487.711,39 | 59 |
| Baztan ikastola | 535.263,31 | 535.666,26 | 15 |

Francisco Joaquin de Iriarte zaharren egoitza ongintzako erakunde autonomoa da, lehentasunez bailarakoak diren eta bertan bizi diren zaharrak eta erretiratuak hartu eta zaintzea helburu duena.

Udalak, Erregerena eta Kinto Real mankomunitateetan parte hartzen du, eta Bortziriak mankomunitatean hiri-hondakin solidoen tratamenduaren kudeaketarako.

Udalerri hau historikoki berezia da, Nafarroako toki-administrazioaren araubideari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 9. Artikuluan jasotzen denez. Honela dio: "Baztango Bailara eta Unibertsitate Ohoretsuko udalerriak haren antolamendu tradizionala mantenduko du, Udalak, Bailarako Batzorde Nagusiak eta lekuetako batzarrek osatutakoa. Horiek udalerriaren gobernuan eta administrazioan parte hartuko dute, Bailarako Ordenantza Orokorretan xedatutakoaren arabera. Ordenantza horiek Batzorde nagusiak soilik onartuak izango dira, indarrean dagoen lege-esparruari eta Nafarroako Foru Zuzenbidearen printzipioei jarraituz".

Udalerriko lekuak (herriak) hauek dira:

| | | |
|---|---|---|
| Almandotz | Azpilkueta | Erratzu |
| Amaiur | Berroeta | Gartzain |
| Aniz | Ziga | Irurita |
| Arizkun | Elizondo | Oronoz-Mugaire |
| Arraiotz | Elbete | Lekarotz |

Datu horiek aditzera ematen dutenez, berezitasun historikoaz gain, Udal honen ezaugarri gisa haren sakabanatzea aipatu behar da. Izan ere, aipatutako hamabost lekuak ezezik, udalerriak barreiatutako hainbat auzo eta baserri ere baditu.

Toki-entitateari aplikagarria zaion legedia honakoa da:

• Nafarroako toki-administrazioari buruzko 6/1990 foru legea.

• Nafarroako toki-ogasunei buruzko 2/1995 foru legea.

• Nafarroako toki-araubidearen eguneratzerako 11/2004 foru legea.

• Toki-araubidearen oinarriak ezartzen dituen 7/1985 legea.

• 251/1993 Legegintzako foru-dekretua, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzurako langileen estatutua.

• Kontratu publikoen 6/2006 foru legea.

• Estatuko 38/2003 diru-laguntzen legea.

• Hirigintza-kudeaketari buruzko 35/2002 foru legea.

• Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru-dekretuak dira, guztiak Nafarroako Toki Administraziorako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak.

• Udalaren burutze-oinarriak eta beste barne arautegia.

Txosten hau sei puntutan egituratuta dago, sarrera hau barne. Bigarren puntuan txostenaren helburuak azaltzen ditugu. Hirugarrenean hedadura azaltzen dugu, eta laugarrenean ondare-egoerari, legezkotasunari, finantza-egoerari eta 2005eko gomendioen jarraipenari buruzko iritziak ematen ditugu. Bosgarren puntuan Baztango Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2007ko finantzen egoera-orriak azaltzen ditu. Seigarren eta azkeneko puntuan organizazioa eta barne-kontrola hobetzeko beharrezkotzat ematen ditugun iruzkinak, ondorioak eta gomendioak azaltzen ditugu.

Txostenaz gain, Udalak egindako 2007ko finantzen egoera-orriei buruzko memoria eransten dugu.

Honako lanean jasotako laguntza eskertzen diegu Udaleko eta haren erakunde autonomoen langile guztiei.

## II. HELBURUA

Nafarroako toki-administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako toki-ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Baztango Udalaren 2007ko ekitaldiko kontu orokorraren erregulartasunaren, finantzarioaren eta legezkotasunaren fiskalizazioa egin dugu.

Txostenak honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea du helburu:

a) Udalaren orri-bateratuak alderdi esanguratsu guztietan egoera ekonomiko-finatzarioaren, aurrekontuaren likidazioaren eta lortutako emaitzaren irudi erreala adierazten duen eta legeriak dioen bezala osatua izan den.

b) Jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkotasun-printzipioari lotua egon ote den.

c) Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2007eko abenduaren 31ko finantza-egoera.

d) 2005eko ekitaldiari dagokion azken fiskalizazio-txostenean Ganbera honek emandako gomendioak noraino bete diren.

Txostenak, Udalaren antolakuntza, barne-kontrola eta eginkortasuna hobetzeko beharrezkotzat jo ditugun gomendio eta iruzkinak biltzen ditu.

## III. HEDADURA

Comptos Ganberak 2007ko Baztango Udalaren orri-bateratuaren fiskalizazioa egin du, Udala beraren eta bere erakunde autonomoen egoera-orriak barne hartzen dituelarik.

Finantza-egoera aipagarri hauek aurkezten ditu Udalak:

• Udalaren eta bere erakunde autonomoen ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria, aurrekontuen emaitza eta diruzaintzako gerakina.

• Udalaren eta bere erakunde autonomoen balantzea.

• Udalaren eta bere erakunde autonomoen galdu-irabazien kontua.

Aipatzekoa da Udalak ez duela bere erakunde autonomoekin batera finantzen egoera-orri bateraturik aurkezten.

Udalak kontabilitate publikoari buruzko plan orokorra ezarrita dauka. Erakunde autonomoek badute kontabilitate orokorra ere, udalean ezarritako ereduaren aplikazio sinplifikatu bati esker.

Eginiko lanak hauxe izan du arretagai: aurrekontuaren betetzeari buruzko kapitulu ekonomikoak berrikustea, horien aldaketak eta aurreikuspenen betetze-maila aztertuta, eta ondare-masak ere berrikustea, antolamenduari, kontabilitateari eta barne-kontrolari buruzko alderdiak aztertuta.

Azterlan hau egin dugu Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako fiskalizazio-printzipioei eta arauei jarraituz, eta baldintzen eta lanaren arabera beharrezkotzat jo ditugun prozedura teknikok aplikatuz. Prozedura hauen barnean laginketa eta aurrekontuaren partiden berrikusketa selektiboak erabili dira.

Toki-Administrazioko sailburuak, 2007ko azaroan argitaratutako foru-agindu baten bitartez, 2007an legez kanpo egindako zenbait kontratazioen baliogabetzea eskatu zizkion Baztango Udalari. 2008ko otsailean jaulkitako foru-agindu baten bitartez, Toki-Administrazioak baliogabetze hauek administrazioarekiko auzibidean ihardestea agindu zuen, azaroan egindako eskaintzak bete ez zirela ikusita.

Foru-agindu horretan eta txosten honen VI.3.2 puntuan aipatzen diren kontratazio-espedienteen berrikusketarik ez dugu egin, auzi-erabakirik gabe baitaude.

## IV. IRITZIA

Baztango Udalaren eta haren erakunde autonomoen finantzen egoera-orriak, 2007ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldikoak, aztertu ditugu. Egoera-orri horiek udalaren ardurapean egin dira.

Egindako berrikuspenaren ondorioz, iritzi hau atera dugu:

### IV.1. 2007ko ABENDUAREN 31ko ONDARE-EGOERAREN AGERPENA

a) 1989koa den ondasunen (ibilgetua) inbentarioa eguneratzeko dago. Hortaz, ezin izan dugu egoera-balantzearen barne dagoen ondasunen saldoa balioztatu.

b) Udalak ez du finantza egoera-orri bateraturik prestatzen.

Aipatu ditugun salbuespenez aparte, 2007 ekitaldiko Udaleko kontu-orokorrek sarreren eta gastuen likidazioaren, egoera-balantzearen eta egindako operazioen emaitzen irudi zehatza adierazten dute alderdi guztietan, eta bere ulermen eta interpretaziorako beharrezko informazioa barneratzen dute. Indarrean dagoen legeria publikoaren arabera eginak izan dira eta aurreko ekitaldiarekin uniformetasuna gordetzen dute.

IV.2. LEGEZKOTASUNA

Txosten honen seigarren puntuan aipatzen diren lan eta zerbitzuen kontratazioen berriztapenean aurkitu ditugun irregulartasunez aparte, Udalaren eta bere erakunde autonomoen jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkotasun-printzipioari jarraituz burutu dela deritzogu.

IV.3. 2007ko ABENDUAREN 31ko FINANTZA-EGOERA

**IV.3.1. Udalaren finantza-egoera**

Hasierako aurrekontua 8.395.235 eurokoa eta behin betiko aurrekontua 15.104.071 eurokoa izanik, gastuetan ehuneko 76ko eta diru-sarreretan ehuneko 83ko betetze-mailak ditu.

2007ko ekitaldian gehitu egin da bai gastuen betetze-maila bai eta diru-sarrerena ere. Hauen barnean, zuzeneko zergen betetze maila ehuneko 121koa da eta zeharkako zergen betetze maila ehuneko 148koa. Bi kapitulu hauek elkarrekin ekitaldiko diru-sarreren ehuneko 21a suposatzen dute. Diru sarreren ehuneko 65a transferentzia bidez lortzen da.

Ekitaldiaren itxieran aurrekontu-emaitza doitua 37.967 eurotakoa izan da.

2007ko abenduaren 31n zorra 4.480.782 eurokoa da. Zorpetze maila ehuneko 12koa da eta zorpetze limitea ehuneko 23koa.

Diruzaintzako gerakina 2.091.822 euroko superabita dauka, eta gastu orokorretarako diruzaintza gerakina 58.200 euroko defizita. Egoera hau Nafarroako toki-ogasunei buruzko 2/1995 foru legeko 230 artikuluak ematen dituen neurriak ezarrita zuzendu behar izango da.

**IV.3.2. Erakunde autonomoen finantza-egoera**

*A) Francisco Joaquin de Iriarte" zahar eta erretiratuen egoitza*

Hasierako aurrekontua 2.051.000 eurokoa eta behin betiko aurrekontua 2.679.000 eurokoa izanik, gastuetan ehuneko 72ko eta diru-sarreretan ehuneko 93ko betetze-mailak ditu.

Egoitzaren diru-iturri nagusiak tasak eta bestelako diru-sarrerak (ekitaldian onartutako eskubideen ehuneko 67a) eta kapital-transferentziak dira (ekitaldian onartutako eskubideen ehuneko 33a). Gastu adierazgarrienak langileenak eta ondasun arruntak eta zerbitzuak erostekoak dira, ehuneko 68a eta 23a suposatzen dutelarik.

Ekitaldiaren itxieran 570.415 euroko superabita lortu da, aurrekontu-emaitza doitua 51.323 eurokoa izanik. Egun, egoitzak ez du zorrik, eta 197.525 euroko diruzaintzako gerakin positiboa eta 369.829 euroko balioko finantza-aktiboak ditu.

*B) Baztan Ikastola*

Hasierako eta behin betiko aurrekontua 525.270 eurokoa du, eta gastuetan eta diru-sarreretan ehuneko 102ko betetze-maila.

Ekitaldiaren itxieran 403 euroko superabita lortu da, eta aurrekontu-emaitza doitua zenbateko berekoa da. Diruzaintzako gerakina 2007ko abenduaren 31n 23.626 eurokoa da.

IV.4. 2005eko TXOSTENEAN EGINDAKO GOMENDIOEN JARRAIPENA

Orokorrean, 2005eko txostenean aipatutako gomendio administrari-kontulariak gaur egun bete gabe daudela baiezta daiteke.

## V. FINANTZA-EGOERA

### V.1. BAZTANGO UDALA

2007 ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria

| Sarrerak | Hasierako aurreikusopena | Aldaketak | Behin-betiko aurreikuspena | Onarturiko eskubideak | Kobrantzak | Kobratzekoa | Ehuneko betetze-maila | Ehuneko garrantzia |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Zuzeneko zergak | 1.653.500,00 | 0,00 | 1.653.500,00 | 2.006.612,10 | 1.872.186,26 | 134.425,84 | 121 | 16 |
| Zeharkako zergak | 457.000,00 | 0,00 | 457.000,00 | 677.053,92 | 369.473,46 | 307.580,46 | 148 | 5 |
| Tasak eta bestelako diru-sarrerak | 648.300,00 | 0,00 | 648.300,00 | 694.012,96 | 614.991,92 | 79.021,04 | 107 | 6 |
| Transferentzia arruntak | 2.737.300,00 | 0,00 | 2.737.300,00 | 2.829.306,59 | 2.511.964,27 | 317.342,32 | 103 | 23 |
| Ondare sarrerak | 314.290,00 | 0,00 | 314.290,00 | 446.744,12 | 374.807,96 | 71.936,16 | 142 | 4 |
| Inbertsio errealen salmentak | 0,00 | 246.830,00 | 246.830,00 | 503.927,67 | 503.927,67 | 0,00 | 204 | 4 |
| Kapitalezko trransferentziak | 1.608.800,00 | 4.146.872,41 | 5.755.672,41 | 5.288.727,46 | 988.618,98 | 4.300.108,48 | 92 | 42 |
| Finantza-aktiboen bariazioak | 27.300,00 | 1.418.631,46 | 1.445.931,46 | 27.263,10 | 17.735,32 | 9.527,78 | 2 | 0 |
| Finantza-pasiboen bariazioak | 948.745,00 | 896.501,79 | 1.845.246,79 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0 | 0 |
| **Sarreren guztizkoa** | **8.395.235,00** | **6.708.835,66** | **15.104.070,66** | **12.473.647,92** | **7.253.705,84** | **5.219.942,08** | **83** | **100** |

| Gastuak | Hasierako aurreikusopena | Aldaketak | Behin-betiko aurreikuspena | Onarturiko obligazioak | Ordaindua | Ordaintzekoa | Ehuneko betetze-maila | Ehuneko garrantzia |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Langilearen ordainketak | 2.002.860,00 | 51.700,00 | 2.054.560,00 | 1.999.685,15 | 1.960.195,69 | 39.489,46 | 97 | 17 |
| Ondasun arruntak eta zerbitzuak | 2.188.805,00 | 0,00 | 2.188.805,00 | 2.035.182,63 | 1.855.608,91 | 179.573,72 | 93 | 18 |
| Finantza gastuak | 234.000,00 | 0,00 | 234.000,00 | 188.204,51 | 188.204,51 | 0,00 | 80 | 2 |
| Transferentzia arruntak | 713.070,00 | 0,00 | 713.070,00 | 619.516,95 | 361.269,42 | 258.247,53 | 87 | 5 |
| Inbertsio errealak | 2.678.500,00 | 6.630.067,08 | 9.308.567,08 | 6.103.595,49 | 2.631.943,18 | 3.471.652,31 | 66 | 53 |
| Kapitalezko transferentziak | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0 | 0 |
| Finantza-aktiboen bariazioak | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 100 | 0 |
| Finantza-pasiboen bariazioak | 578.000,00 | 27.068,58 | 605.068,58 | 574.717,03 | 574.717,03 | 0,00 | 95 | 5 |
| **Gastuen guztizkoa** | **8.395.235,00** | **6.708.835,66** | **15.104.070,66** | **11.520.901,76** | **7.571.938,74** | **3.948.963,02** | **76** | **100** |

Aurrekontuaren emaitza

| Kontzeptua | 2007 | |
|---|---|---|
| + Aitortutako eskubide garbiak | 12.473.647,92 | |
| - Onartutako obligazio garbiak | (11.520.901,76) | |
| **Aurrekontuaren emaitza** | | **952.746,16** |
| **Egokitzeak** | | |
| - Finantzaketa desbideratze positiboak | (1.737.628,37) | |
| + Finantzaqketa desbideratze negatiboak | 567.082,89 | |
| + Diruzaintza gerakinaren bidez finantzatutako gastuak | 179.832,21 | |
| + Merkatal eragiketen emaitza | 0,00 | |
| **Aurrekontuaren emaitza doitua** | | **(37.967,11)** |

Diruzaintza gerakina

| Konzeptua | Año 2007 | |
|---|---|---|
| **+ Kobratzeko eskubideak** | | **6.881.825,88** |
| + Sarreren aurrekontukoak: ekitaldi korrontea | 5.219.942,08 | |
| + Sarreren aurrekontuakoak: ekitaldi itxiak | 1.440.591,70 | |
| + Kobratzeko dauden itzulerak | 0,00 | |
| - Aplikatzeko dauden diru-sarrerak | 0,00 | |
| + Aurrekontuetakoak ez diren beste hainbat operazioetakoak | 221.292,10 | |
| **- Kobratzeko zalantzazko saldoak** | **(1.274.200,90)** | **5.607.624,98** |
| **- Ordaintzeko obligazioak** | | **(4.620.703,29)** |
| - Gastuen aurrekontukoak: ekitaldi korrontea | (3.948.963,02) | |
| - Gastuen aurrekontukoak: ekitaldi itxiak | (122.357,3) | |
| - Ordaintzeko dauden itzulerak | 0,00 | |
| +Aplikatzeko dauden gastuak | 0,00 | |
| - Aurrekontuetakoak ez diren beste hainbat operazioarekin | (549.382,97 | |
| + Altxortegiko fondo likidoak | | 1.104.900,07 |
| + Finantza desbideratze negatibo gehituak | | 0,00 |
| **= Diruzaintza gerakina totala** | | **2.091.821,76** |
| Gastuetarako soberakina kaltetutako finantziazioarekin | 1.570.545,88 | |
| Finantziaketa atxikita duten gastuen soberakina | 579.475,61 | |
| Gastu orokorretarako diruzaintza gerakina | (58.199,73) | |

## Egoera-balantzea

AKTIBOA

| Kontzeptua | 2007 | |
|---|---|---|
| **IBILGETUA** | | **38.958.130,73** |
| IBILGETU MATERIALA | 33.786.308,64 | |
| IBILGETU EZMATERIALA | 607.552,02 | |
| ERABILERA OROKORRERAKO ONDAS. NAT. AZPIEG. | 1.978.271,31 | |
| ONDASUN KOMUNALAK | 2.509.123,22 | |
| IBILGETU FINANTZARIOA | 76.875,54 | |
| **HAINBAT EKITALDITAN BANATZEKO GASTUAK** | | **0,00** |
| EZABATZEKO GASTUAK | 0,00 | |
| **ZIRKULATZAILEA** | | **8.008.901,26** |
| IZAKINAK | 0,00 | |
| ZORDUNAK | 6.904.001,19 | |
| FINANTZA KONTUAK | 1.104.900,07 | |
| ALDIZKAKO DOITZE FIANNTZAKETEN BEHIN BEHINEKO EGOERA | 0,00 | |
| APLIKATZEKO DAGOEN EMAITZA (EKITALDIKO GALERA) | 0,00 | |
| **GUZTIRA** | | **46.967.031,99** |

PASIBOA

| Kontzeptua | 2007 | |
|---|---|---|
| **BEREZKO FONDOAK** | | **37.843.371,28** |
| ONDARE ETA ERRESERBAK | 15.423.803,73 | |
| GALDU-IRABAZIAK | 2.279.705,50 | |
| KAPITALEZKO DIRU-LAGUNTZAK | 20.139.862,05 | |
| **ARRISKU ETA GASTUETARAKO HORNIDURA** | | **0,00** |
| HORNIDURA | 0,00 | |
| **HARTZEKODUNAK, EPE LUZERA** | | **4.480.782,11** |
| ZORRAK, KREDITU ERAKUNDEEKIN | 4.480.782,11 | |
| **HARTZEKODUNAK, EPE LABURRERA** | | **4.642.876,60** |
| HARTZEKODUN KOMERTZIALAK ETA EZ KOMERTZIALAK | 4.642.878,60 | |
| APLIKATZEKO DAUDEN DIRU-SAILAK ETA ALDIZKAKO DOITZAK | 0,00 | |
| **GUZTIRA** | | **46.967.031,99** |

V.2. “FRANCISCO JOAQUÍN DE IRIARTE” ZAHAR ETA ERRETIRATUEN EGOITZA

2007 ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria

| Sarrerak | Hasierako aurreikusopena | Aldaketak | Behin-betiko aurreikuspena | Onarturiko eskubideak s | Kobrantzak | Kobratzekoa | Ehuneko betetze-maila | Ehuneko garrantzia |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Tasak eta beste diru sarrerak | 1.808.000,00 | 0,00 | 1.808.000,00 | 1.660.937,49 | 1.646.764,77 | 14.172,72 | 92 | 67 |
| Transferentzia arruntak | 16.000,00 | 0,00 | 16.000,00 | 163.328,61 | 150.275,61 | 13.053,00 | 1021 | 7 |
| Ondare-sarrerak | 1.000,00 | 0,00 | 1.000,00 | 3.184,57 | 3.184,57 | 0,00 | 318 | 0 |
| Inbertsio errealen salmentak | 30.000,00 | 0,00 | 30.000,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0 | 0 |
| Kapitalezko transferentziak | 195.000,00 | 486.780,00 | 681.780,00 | 660.260,72 | 27.206,87 | 633.053,85 | 97 | 27 |
| Finantza-aktiboen bariazioak | 1.000,00 | 141.220,00 | 142.220,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0 | 0 |
| **Sarreren guztizkoa** | **2.051.000,00** | **628.000,00** | **2.679.000,00** | **2.487.711,39** | **1.827.431,82** | **660.279,57** | **93** | **100** |

| Gastuak | Hasierako aurreikusopena | Aldaketak | Behin-betiko aurrekontua | Onarturiko obligazioak | Ordaindua | Ordaintzekoa | Ehuneko betetze-maila | Ehuneko garrantzia |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Langileriaren ordainketak | 1.350.000,00 | 0,00 | 1.350.000,00 | 1.294.407,86 | 1.269.732,92 | 24.674,94 | 96 | 68 |
| Ondasun arruntak eta zerbitzuak | 467.900,00 | 0,00 | 467.900,00 | 431.857,40 | 395.260,26 | 36.597,14 | 92 | 23 |
| Inbertsio errealak | 233.000,00 | 628.000,00 | 861.000,00 | 191.031,38 | 191.031,38 | 0,00 | 22 | 10 |
| Finantza-aktiboen bariazioak | 100,00 | 0,00 | 100,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 100 | 0 |
| **Gastuen guztizkoa** | **2.051.000,00** | **628.000,00** | **2.679.000,00** | **1.917.296,64** | **1.856.024,56** | **61.272,08** | 72 | 100 |

Aurrekontuaren emaitza

| Kontzeptua | 2007 | |
|---|---|---|
| + Aitortutako eskubide garbiak | 2.487.711,39 | |
| - Onartutako obligazio garbiak | (1.917.296,64) | |
| **Aurrekontuaren emaitza** | | **570.414,75** |
| **Egokitzeak** | | |
| - Finantziaketa desbideratze positiboak | (519.092,01) | |
| + Finantziaketa desbideratze negatiboak | 0,00 | |
| + Diruzaintza gerakinaren bidez finantziatutako gastuak | 0,00 | |
| + Merkatal eragiketen emaitza | 0,00 | |
| **Aurrekontuaren emaitza doitua** | | **51.322,74** |

Diruzaintza gerekina

| Kontzeptua | 2007 | |
|---|---|---|
| **+ Kobratzeko eskubideak** | | **661.861,03** |
| + Sarreren aurrekontukoak: ekitaldi korrontea | 660.279,57 | |
| + Sarreren aurrrekontukoak: ekitaldi itxiak | 0,42 | |
| + Kobratzeko dauden itzulerak | 0,00 | |
| - Aplikatzeko dauden diru sarrrerak | 0,00 | |
| + Aurrekontuetakoak ez diren beste hainbat operazioetakoak | 1.581,04 | |
| **- Kobratzeko zalantzazko saldoak** | **0,42** | **661.860,61** |
| **- Ordaintzeko obligazioak** | | **(99.300,51)** |
| - Gastuen aurrekontukoak: ekitaldi korrrontea | (61.272,08) | |
| - Gastuen aurrekontukoak: ekitaldi itxiak | (69,61) | |
| - Ordaintzeko dauden itzulerak | 0,00 | |
| + Aplikatzeko dauden gastuak | 0,00 | |
| - Aurrekontuetakoak ez diren beste hainbat operazioetakoak | (37.958,82) | |
| + Altxortegiko fondo likidoak | | 154.057,02 |
| + Finantza desbideratze negatibo gehituak | | 0,00 |
| **= Diruzaintza gerakina totala** | | **716.617,12** |
| Gastuetarako soberakina kaltetutako finantzioarekin | 519.092,01 | |
| Finantziaketa atxikita duten gastuen soberakina | 0,00 | |
| Gastu orokorretarako diruzaintza gerakina | 197.525,11 | |

## Egoera-balantzea

AKTIBOA

| Kontzeptua | 2007 | |
|---|---|---|
| IBILGETUA | | 1.221.503,81 |
| IBILGETU MATERIALA | 837.178,73 | |
| IBILGETU EZMATERIALA | 0,00 | |
| ERABILERA OROKORRERAKO ONDAS. NAT. AZPIEG. | 0,00 | |
| ONDASUN KOMUNALAK | 0,00 | |
| IBILGETU FINANTZARIOA | 384.325,08 | |
| HAINBAT EKITALDITAN BANATZEKO GASTUAK | | 0,00 |
| EZABATZEKO GASTUAK | 0,00 | |
| ZIRKULATZAILEA | | 815.918,05 |
| IZAKINAK | 0,00 | |
| ZORDUNAK | 661.861,03 | |
| FINANTZA KONTUAK | 154.057,02 | |
| ALDIZKAKO DOITZE FIANNTZAKETEN BEHIN BEHINEKO EGOERA | 0,00 | |
| APLIKATZEKO DAGOEN EMAITZA (EKITALDIKO GALERA) | 0,00 | |
| GUZTIRA | | 2.037.421,86 |

PASIBOA

| KONTZEPTUA | 2007 | |
|---|---|---|
| BEREZKO FONDOAK | | 1.938.121,35 |
| ONDARE ETA ERRESERBAK | 761.149,95 | |
| GALDU-IRABAZIAK | 248.744,88 | |
| KAPITALEZKO DIRU-LAGUNTZAK | 928.226,52 | |
| ARRISKU ETA GASTUETARAKO HORNIDURA | | 0,00 |
| HORNIDURA | 0,00 | |
| HARTZEKODUNAK, EPE LUZERA | | 0,00 |
| ZORRAK, KREDITU ERAKUNDEEKIN | 0,00 | |
| HARTZEKODUNAK, EPE LABURRERA | | 99.300,51 |
| HARTZEKODUN KOMERTZIALAK ETA EZ KOMERTZIALAK | 99.300,51 | |
| APLICATZEKO DAUDEN DIRU-SAILAK ETA ALDIZKAKO DOITZAK | 0,00 | |
| GUZTIRA | | 2.037.421,86 |

## V.3. BAZTAN IKASTOLA

### 2007 ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria

| Sarrerak | Hasierako aurrekontua | Aldaketak | Behin-betiko aurrekontua | Aitortutako eskubideak | Kobratua | Kobratzekoa | Ehuneko betetze-maila | Ehuneko garrantzia |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Tasak eta bestelako diru-sarrerak | 33.567,00 | 0,00 | 33.567,00 | 26.699,14 | 23.173,64 | 3.525,50 | 80 | 5 |
| Transferentzia arruntak | 491.703,00 | 0,00 | 491.703,00 | 508.967,12 | 508.195,52 | 771,60 | 104 | 95 |
| **Sarreren guztizkoa** | **525.270,00** | **0,00** | **525.270,00** | **535.666,26** | **531.369,16** | **4.297,10** | **102** | **100** |

| Gastuak | Hasierako aurrekontua | Aldaketak | Behin-betiko aurrekontua | Aitortutako obligazioak | Ordaindua | Ordaintzekoa | Ehuneko betetze-maila | Ehuneko garrantzia |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Langileriaren ordainketak | 480.870,00 | 0,00 | 480.870,00 | 490.029,80 | 488.412,98 | 1.616,82 | 102 | 92 |
| Ondasun arruntak eta zerbitzuak | 42.900,00 | 0,00 | 42.900,00 | 45.233,51 | 31.242,92 | 13.990,59 | 105 | 8 |
| Inbertsio errealak | 1.500,00 | 0,00 | 1.500,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0 | 0 |
| **Gastuen guztizkoak** | **525.270,00** | **0,00** | **525.270,00** | **535.263,31** | **519.655,90** | **15.607,41** | **102** | **100** |

Aurrekontuaren emaitza

| Kontzeptua | 2007 | |
|---|---|---|
| + Aitortutako eskubide garbiak | 535.666,26 | |
| - Onartutako obligazio garbiak | (535.263,31) | |
| **Aurrekontuaren emaitza** | | **402,95** |
| **Egokitzeak** | | |
| - Finantziaketa desbideratze positiboak | 0,00 | |
| + Finantziaketa desbideratze negatiboak | 0,00 | |
| + Diruzaintza gerakinaren bidez finantziatutako gastuak | 0,00 | |
| + Merkatal eragiketen emaitza | 0,00 | |
| **Aurrekontuaren emaitza doitua** | | **402,95** |

Diruzaintza gerakina

| Concepto | Año 2007 | |
|---|---|---|
| **+ Kobratzeko eskubideak** | | **7.629,10** |
| + Sarreren aurrekontukoak: ekitaldi korrontea | 4.297,10 | |
| + Sarreren aurrekontukoak: ekitaldi itxiak | 0,00 | |
| + Kobratzeko dauden diru-itzulerak | 0,00 | |
| - Aplicatzeko dauden diru-sarrerak | 0,00 | |
| + Aurrekontuetakoak ez diren beste hainbat operazioetakoak | 3.332,08 | |
| **- Kobratzeko zalantzazko saldoak** | **0,00** | **7.629,10** |
| **- Ordaintzeko obligazioak** | | **(32.613,61)** |
| - Gastuen aurrekontukoak: ekitaldi korrontea | (15.607,41) | |
| - Gastuen aurrekontukoak: ekitaldi itxiak | 0,00 | |
| - Ordaintzeko dauden itzulerak | 0,00 | |
| + Aplikatzeko dauden gastuak | 0,00 | |
| - Aurrekontuetakoak ez diren beste hainbat operazioetakoak | (17.006,20) | |
| + Altxortegiko fondo likidoak | | 48.610,56 |
| + Finantza desbideratze negatibo gehituak | | 0,00 |
| **= Diruzaintza gerakina totala** | | **23.626,05** |
| Gastuetarako soberakina kaltetutako finantziazioarekin | 0,00 | |
| Finantziaketa atxikita duten gastuen soberakina | 0,00 | |
| Gastu orokorretarako diruzaintza gerakina | 23.626,05 | |

## Egoera-balantzea

AKTIBOA

| Kontzeptua | 2007 | |
|---|---|---|
| IBILGETUA | | 11.833,92 |
| IBILGETU MATERIALA | 11.833,92 | |
| IBILGETU EZMATERIALA | 0,00 | |
| ERABILERA OROKORRERAKO ONDAS. NAT. AZPIEG. | 0,00 | |
| ONDASUN KOMUNALAK | 0,00 | |
| IBILGETU FINANTZARIOA | 0,00 | |
| **HAINBAT EKITALDITAN BANATZEKO GASTUAK** | | **0,00** |
| EZABATZEKO GASTUAK | 0,00 | |
| ZIRKULATZAILEA | | 56.239,74 |
| IZAKINAK | 0,00 | |
| ZORDUNAK | 7.629,18 | |
| FINANTZA KONTUAK | 48.610,56 | |
| ALDIZKAKO DOITZE FIANNTZAKETEN BEHIN BEHINEKO EGOERA | 0,00 | |
| APLIKATZEKO DAGOEN EMAITZA (EKITALDIKO GALERA) | 0,00 | |
| GUZTIRA | | 68.073,66 |

PASIBOA

| Kontzeptua | 2007 | |
|---|---|---|
| BEREZKO FONDOAK | | 35.460,56 |
| ONDARE ETA ERRESERBAK | 86.352.56 | |
| GALDU-IRABAZIAK | (50.892,00) | |
| KAPITALEZKO DIRU-LAGUNTZAK | 0,00 | |
| ARRISKU ETA GASTUETARAKO HORNIDURA | | 0,00 |
| HORNIDURA | 0,00 | |
| HARTZEKODUNAK, EPE LUZERA | | 0,00 |
| ZORRAK, KREDITU ERAKUNDEEKIN | 0,00 | |
| HARTZEKODUNAK, EPE LABURRERA | | 32.613,61 |
| HARTZEKODUNAK, EPE LABURRRERA | 32.613,61 | |
| APLIKATZEKO DAUDEN DIRU-SAILAK ETA ALDIZKAKO DOITZAK | 0,00 | |
| GUZTIRA | | 68.073,66 |

## VI. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Jarraian, Udalak bere antolakuntza, prozedura, kontabilitate eta barne kontrol sistemak hobetzeko aplikatu beharko lituzkeen gomendio printzipalak azaltzen ditugu.

### VI.1. ASPEKTU OROKORRAK

• *Erakunde autonomoei aurrekontua eta finantzen egoera-orrien likidazioa epe barruan egitea exijitu behar zaie. Hori egitean, ez da ahaztu behar erakunde horien ekintzak, erakunde publiko direnez, kontu-hartze publikoaren mende daudela. Beraz, kontu-hartzailetzako funtzio horretan benetan jarduteko bidezko prozedurak finkatu behar dira.*

• *Udalaren eta haren erakunde autonomoen finantzen egoera-orri bateratuetarako memoria prestatzea.*

• *Memoria osatzea, administrazio-kontratazioari, udal-langileei eta hirigintzari buruzko informazioa barne hartuta.*

### VI.2. LANGILERIA

Honako kontratazio espedienteak berrikusi ditugu:

• Administrari laguntzaile bezala lan egiteko 2 posturen lehiaketa-oposizioaren deialdia.

• Euskarazko teknikari baten aldi baterako kontratazioa.

Egindako berrikuspenaren ondorioz espedienteek indarrean dagoen legediaren betetzea eta jarraipen administrari-kontulari zuzena betetzen dutela ondoriozta daiteke.

*Gomendatzen dugu:*

• *Erakunde autonomoen lantalde organikoak indarrean dagoen legeriaren epeak betez baietsi eta jakinarazi.*

• *Baztan ikastolari dagokionez, bertako enplegatu guztien lan-kontratuak idatziz formalizatzea.*

### VI.3. ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOA

Atal hau bi zatitan banatuta dago: batetik, hornidurak erosteari eta zerbitzu-emateari buruzko alderdiak, eta, bestetik, inbertsioak.

#### VI.3.1. Hornidurak erostea eta zerbitzugintza

2007an onartutako obligazioek Udaleko gastu totalaren ehuneko 18a suposatzen dute. Gastu hauen zerrenda honakoa da:

| Kapituluak | 2007an onartutako obligazioak |
|---|---|
| Konponketak, mantenimendua eta artapena | 507.135,01 |
| Materialak, hornidurak eta besteak | 1.486.982,16 |
| Zerbitzuekin erlazionaturiko kalte-zerbitzuak | 31.062,46 |
| Argitalpenak | 10.000,00 |
| **Guztira** | **2.035.182,63** |

Jakinarazi digute 2007ko ekitaldian ez dutela kontratazio-espediente berririk egin. Hala ere, Udalak dituen kontratu garrantzitsuenetako batzuk jasotzen ditugu:

| | Gastua(eurotan) |
|---|---|
| Eskolaren mantenimendu eta artapena | 90.379 |
| Haur-hezkuntzako zentruaren kudeaketa | 131.551 |
| Eremu larategidunen garbiketa | 75.952 |

Comptos Ganberaren gomendioei jarraituz, erosketak kudeatzeko prozedura normalizatua aplikatzen da. Nolanahi ere, azterketa egin ondoren honakoa ondorioztatu dugu:

• Udalak ez ditu beste ekitaldietan egindako kontratazio-espedienteen eta indarrean dauden kontratuen erregistro eguneraturik. Horren ondorioz, zenbait kasutan, zerbitzugintzako kontratuen isilbidezko luzapenak gainditu egiten dute ezarritako gehieneko epea.

• Udalak ez du kontratazio-prozedurarik egin hirigintzari buruzko aholkularitza juridikoa zerbitzurako. Aurtengo ekitaldian kontabilizaturiko gastua 44.481 eurokoa da.

*Gomendatzen dugu:*

• *Kontratazioari buruzko araudia zorrotz aplikatzea, bai espedienteak bete eta mantentzeari buruzko alderdi formaletan, bai eta esleipen-prozesuari buruzko alderdietan ere.*

• *Espedienteen eta kontratuen kontrol eguneratua eramatea.*

• *Udalak jasotzen dituen zerbitzuei buruzko azterketa egitea, kontratuak berritzeko eta eskaintza berriak egiteko beharra kontuan izanda, kontratazio horiek indarrean dagoen legeriaren arabera berriro esleitzearren.*

**VI.3.2. Inbertsioak**

2007an onartutako obligazioen zerrenda honakoa da:

| Kapituluak | 2007an onartutako obligazioak |
|---|---|
| Erabilera publikoko eta azpiegiturak | 2.822.568,66 |
| Zerbitzuen funtzioanamenduarekin erlazionaturiko inbertsioak | 2.852.665,04 |
| Inbertsio ezmaterialak | 155.780,81 |
| Beste inbertsioak | 272.580,98 |
| **Guztira** | **6.103.595,49** |

Ondoko kontratazio-espedienteak berrikusi ditugu, horien urte anitzeko aurrekontu-egozpena kontutan hartu gabe:

• 0-3 urte arteko haur-eskolaren eraikuntza (1.121.392 euro)

• Berrikuntzak Erratzuko pilotalekuan (447.305 euro)

• Medikuntza zentroaren eraikuntza Erratzun (112.956 euro)

• Hodi nagusiaren zatikako berrikuntza Erratzun (82.011 euro)

Espediente hauek aztertzerakoan zenbait izapide urritasun aurkitu ditugu.

Konkretuki, Udaleko kontu hartzailetzak ingera ohar bat egin zuen Erratzuko Etxebert pilotalekuko errehabilitazio eta segurtasun ikerketa proiektuaren erredakzioaren inguruan kontratazio prozesurik egin ez delako bere desadostasuna agertuz. Gastua 27.086 eurokoa da.

Halaber, Udaleko kontu hartzailetzak ingera ohar bat egin du 0-3 urte arteko haur eskolaren eraikuntzaren inguruan, “haur eskolako obra zuzendaritzarako ordainsarien faktura partziala” lanen inguruan kontratazio prozesurik egin ez delako bere desadostasuna agertuz. Gastua 22.237 eurokoa da.

Bestalde, erakunde autonomoen legaltasunaren betetzearen analisian, zahar eta erretiratuen egoitzan su legeriara egokitzeko obraren inguruan ez da kontratazio prozesurik egin, ezta obra honen zuzendaritzarako ere. Espediente hauen zenbatekoak 709.791 eta 24.432 eurotakoak dira, hurrenez hurren.

Gomendatzen dugu:

• *Administrazio-kontratazioaren arloan indarrean dagoen legeriaren alderdi guztiak betetzea, bai Udalak baita bere erakunde autonomoek egiten duten inbertsio bakoitzerako kontratazio espediente bat osatuz, non beharrezkoak diren dokumentu guztiak biltzen diren.*

• *Datorren urteetan egingo diren inbertsioak planifikatu burutze datak zehazten dituen inbertsio egitarau baten prestakuntzaren bitartez, aurrekontuen egintzak eta finantziazio kalkuluak errazteko.*

Udalak 2007an eginiko, eta auzi-erabakirik gabe daudelakoz berrikusi egin ez ditugun kontratazio-espedienteen zerrenda ematen dugu jarraian:

• 529.473,87 eurotan (B.E.Z. barne) “Arraiotzeko Arriba eta Mardea auzoetan galtzadatze eta sare-berritzeak, 2007ko maiatzeko uholdeengatik” larrialdia argudiatuz adjudikatutako lanak.

• 1.130.056,55 eurotan (B.E.Z. barne) "Arraiotzeko zeharbidean galtzadatze eta sare-berritzeak, 2007ko maiatzeko uholdeengatik" larrialdia argudiatuz adjudikatutako lanak.

• 190.998,28 eurotan (B.E.Z. barne) "Arraiotzeko Artixoko errekastoan berritze eta egokitzapenak, 2007ko maiatzeko uholdeengatik" larrialdia argudiatuz adjudikatutako lanak.

• 1.951.117,39 eurotan (B.E.Z. barne) "Baztango udal-mugartean abere azpiegituretan berriztatzeak, maiatzaren 4an jasandako uholdeen ondorioz" larrialdia argudiatuz adjudikatutako lanak.

• 70.204,65 eurotan (B.E.Z. barne) "Francisco Javier Deunaren estalkian berritzeak" lanak zuzenean adjudikatzeagatik.

• 27.840 eurotan (B.E.Z. barne) "magnesita erauzketa proiektuaren inguruan eginiko komunikazio eta aholkularitza lanak Baztanen" lana zuzenean adjudikatzeagatik.

VI.4. INBENTARIOA/IBILGETUA

• *Bai Udalaren, bai haren erakunde autonomoen ondasunak eskrituratu eta erregistratzeko prozesua osatzea, ondasun horiek herri-jabari publikokoak izan zein ondarekoan edo herri-ondasuna izan.*

• *Udalaren inbentarioa eguneratuta edukitzea eta kontabilitatearekin lotura egokia izateko behar diren prozedurak prestatu eta aplikatzea.*

• *Ibilgetuko alta eta bajak kontabilizatzeko eta dokumentazioa artxibatzeko prozedurak zehaztu eta ezartzea, kontu horiei aplikatzekoak diren kontabilitate-irizpideei jarraituz.*

• *Ibilgetua osatzen duten kontabilitate-saldoak berrikusi eta araztea, Udalaren ondasunak behar bezala ager daitezen.*

VI.5. HIRIGINTZA

2002ko irailaren 25ean BON 116 zenbakian argitaratu egin zen 2001ko urriaren 24an hirigintza-kudeaketa komisioak baietsi zuen Baztango Udal-plana. Hortaz, Udalak gaur egun erabiltzen den Udal-plana ez dago indarreko legeriari egokituta.

Udalak ez dauka lurzoruaren udal-ondarerik, eta osatzen duten ondasunen norakoaren jarraipenik ez du egiten.

Gure berrikuspenean udalaren eta enpresa baten arteko hirigintza hitzarmena, AR-2 guneari eta Oronozko San Martin ikastetxearen berritzeari lotuta. Udaleko idazkariak espedienteak dituen hutsune batzuk aipatzen ditu, enpresak ez baititu bete dagozkion betebehar batzuk. Espedientea amaitutzat emateko hutsune horiek konpondu beharra nabarmentzen du.

Ondorioz, *gomendatzen dugu:*

• *Lurzoruaren udal-ondarea, burutu gabe dauden ataletan, lurraldearen eta hirigintzaren antolamendua arautzen duen 35/2002 lege-foralera homologatzea.*

• *Lurzoruaren udal-ondarea Udaleko beste ondasunetatik berezita kudeatzea.*

• *Lurzoruaren udal-ondarean ematen diren eskudiru bidezko eta lurzoru bidezko sarrera eta irteerak erregistratzea, legerian aipatzen diren xedeetara destinatu direla justifikatuz.*

• *Hirigintza-hitzarmenen erregistroa gaurkotua mantentzea eta indarrean dagoen legeriak exigitzen duen dokumentazio guztia betetzea gomendatzen dugu (txosten teknikoak, legalak etb.).*

Txosten hau aurretiazko izapide guztiak bete dugun ondoren ateratzen dugu indarrean dauden arauen arabera.

Iruñean, 2009ko apirilaren 28an

Presidentea: Luis Muñoz Garde

Inprimatzailea: Ulzama Digital (Iruña).
Lege Gordailua: NA – 363-1995
Paper ekologiko birziklatua